Zugaztel, M.P., S.A.-ko aholkularitza juridikoko zerbitzua kontratatzeko zehaztapen teknikoen plegua.

2026/3/25

AURKIBIDEA

1 XEDEA 1

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK 1

3 GIZA BALIABIDEAK ETA MATERIALA 2

3.1 GIZA BALIABIDEAK 2

3.2 BALIABIDE MATERIALAK 3

4 BALDINTZA BEREZIAK 4

4.1 KONTRATUA GAUZATZEA 4

4.2 DATUAK BABESTEA 5

4.3 SEGURTASUN- ETA KONFIDENTZIALTASUN-BALDINTZAK 5

4.4 JABETZA INTELEKTUALA 6

I. ERANSKIN: ..... DATU PERTSONALAK BABESTEA 8

II. ERANSKIN: ..... DATU PERTSONALDEN TRATAMENDUA IDENTIFIKATZEA 15

1 XEDEA

Plegu honen xedea da Zugaztel, M.P., S.A.ren (aurrerantzean, Zugaztel) aholkularitza juridikoko zerbitzuak kontratatzeko behar diren zehaztapen teknikoak definitzea.

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Zugaztelek, gutxienez, honako zeregin hauek eskatzen dizkio enpresa adjudikaziodunari aholkularitza juridikoko zerbitzuak betetzeko:

- Lan- eta administrazio-zuzenbidearen eremuko gaiei buruzko kontsultak ebaztea eta aholkuak ematea.
- Administrazioarekiko eta sektore publikoko erakundeekiko harremanak eta kontsultak. Baita aurkeztu beharreko dokumentuak prestatzea ere.
- Zugaztelen interesen defentsa prozesala eta juridikoa Justizia Auzitegietan, gehienez ere bi prozedura judizial urtean.
- Aplikatu beharreko araudiak eskatutako txostenak edota dokumentuak egitea hirugarrenen, erakundearen edota Bizkaiko Foru Aldundiaren errekurtsoen aurrean, Zugaztelek uste dituen beharrizanen arabera.
- Zugaztelek prestatutako dokumentuen berrikuspen juridikoa.
- Zugazteleko kontratazio-mahaiko kide juridikoa izatea.
- Kontratazio-espedientea osatzen duten dokumentuak araudira egokitzea, haien edukia sektore publikoko kontratazioaren printzipio gidariekin bat datorrela bermatzeko.
- Kontratazio-prozeduren eta -ereduen edukia araudian egindako aldaketen arabera egokitzea.
- Hiru hilean behin txosten, aldizkari edo jakinarazpen bat bidaltzea, berritasun, aldaketa, gai garrantzitsu eta abarrekin.
- Zugaztelen errealitatera egokitutako araudia aplikatzearekin lotutako prestakuntza-pilula urtean behin antolatzea, gutxienez.

© Zugaztel M.P., S.A.

3 GIZA TALDEA ETA MATERIALA

4. GIZA BALIABIDEAK

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den zerbitzu arruntari erantzuteko behar diren langileak eduki beharko ditu.

Gutxi gorabeherako epeei dagokienez, izendatutako taldeak urtean 300 ordu inguru emango dituela kalkulatu da, eta ordu horiek proportzionalki bana daitezke bi diziplinen artean.

Arestian adierazitako zerbitzuen erantzun-denbora 72 ordutik gorakoa ez izatea eskatzen da, ohiz kanpoko kasuetan salbu.

Enpresa adjudikaziodunak gutxienez honako hauek betetzen dituen talde bat eduki beharko du:

- ✓ Zugaztelen esku jarritako lantaldeko kide guztiek zuzenbidean lizentziatuak izan beharko dute eta abokatuen elkargo profesional batean behar bezala elkargokide izan beharko dute.
- ✓ Profesionalek gutxieneko espezializazio-maila bat edukiko dute Zugaztel aholkatzen ari diren gaian.
- ✓ Zerbitzua ematera atxikitako lantaldearen buru pertsona bat izendatuko da, une oro zerbitzugintzaren xedea eratzen duten jardueren martxa egokia ikuskatzeaz eta arlo juridiko guztietatik aholkularitza koordinatzeaz arduratuko dena. Pertsona hori abokatua izango da, hamabost urte baino gehiago daramatzana lanbidean, eta zuzeneko taldean, diziplina bakoitzean, gutxienez bost urteko esperientzia daukaten bi abokatu egongo dira, gutxienez.
- ✓ Kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldeak egonkorra izan behar du, kontratuaren xede den zerbitzugintzaren egonkortasuna lortze aldera.
- ✓ Enpresari adjudikaziodunak zerbitzua ematen duten pertsonak kontrolatuko eta gainbegiratuko ditu, eta inor gaixotzen bada, oporretan badago edo lanera agertzen ez bada, beste langile kualifikatu bat ipiniko da ordezko.
- ✓ Kasu hipotetiko gisa, Zugaztel ez badago lantaldeko kideren baten jardunarekin gustura, enpresari adjudikaziodunak 48 ordu igarotakoan gutxienez kualifikazio bera daukan ordezko profesional bat ipiniko du.

© Zugaztel M.P., S.A.

- ✓ Lantaldeko pertsonak adjudikaziodunaren mende egongo dira soil-soilik, eta hark izango du unean-unean indarrean dagoen lan- eta gizarte-legediaren arabera enpresaburu izateari dagozkion eskubide eta obligazio guztien erantzukizuna. Langile horiek ezin izango dute inolako eskubiderik baliatu Zugaztelekin lotuta, eta ezin izango diote inolako erantzukizunik eskatu enpresaburu adjudikaziodunaren eta bere enplegatuen artean dauden harremanen kariaz, nahiz eta adjudikaziodunak har ditzakeen neurriak, kaleratzea barne, kontratuaren ez-betetzean, interpretazioan eta beste ondore batzuetan oinarritu.
- ✓ Kontratista derrigortuta dago Langileen Estatutuan, Gizarte Segurantzari buruzko lege-arauetan eta aplikatzekoak diren beste xedapen osagarri guztietan (indarrekoetan zein aurrerantzean ematen direnetan) ezarritakoa betetzera, eta laneko istripuen eta lan- nahiz lanbide-gaixotasunaren kontigentzietarako estaldura eduki beharko du bere langileentzat, legez ezarritako moduan eta baldintzetan.
- ✓ Kontratistak ordainduko ditu zerbitzua ematen aritzen diren langile guztien soldatak eta gainerako ordainsari-kontzeptuak, bai eta Gizarte Segurantzari, laneko istripuei eta lan-mutualitateari buruzko kuotak eta gainerako obligazioak ere.
- ✓ Greba edo bestelako lan-uzterik gertatuz gero, kontratista arduratuko da zerbitzua emateko behar diren gutxieneko zerbitzuak bermatzeaz.
- ✓ Kontratuaren indarraldian, lan-txandakatzearen indizea ezin izango da urtean ehuneko hamabost baino handiagoa izan, kontratuaren xede den zerbitzugintzaren egonkortasuna lortze aldera.

4.1 BALIABIDE MATERIALAK

Hautatutako adjudikaziodunak aholkularitza juridikoko eta prestakuntzako zerbitzua taxuz emateko beharrezkoak diren baliabide material guztiak edukiko ditu: kontratuaren xede diren gai guztietan behar bezala eguneratuta dauden datu-base juridikoetarako sarbidea; posta elektronikorako eta telefono mugikorrerako sarbidea zerbitzugintzan esku hartzen duten lantaldeetako kide guztientzat (komunikazio-kanal hori noiznahi eduki behar dute erabilgarri taldeetako arduradunek); Zugaztelen sistema ofimatikoarekin erabat bateragarriak diren dokumentuekin lan egiteko erabil daitezkeen ofimatika-paketeak, segurtasuna bermatzen dutenak.

© Zugaztel M.P., S.A.

Adjudikaziodunak bideokonferentzia-sistema eduki beharko du, segurtasun-elementuz hornitua (firewall, enkriptatzioa, etab), modu telematikoan bilerak egin ahal izateko, denbora errealean irudi- eta soinu-euskarriarekin, haren bulegoen eta kontratuaren arduradunaren egoitzaren artean. Bideokonferentzia ezin da erabili bertatik bertarako bileren ordez; aitzitik, aparteko kasuetan baino ezin izango da erabili, arrazoiak azalduta.

4 BALDINTZA BEREZIAK

6. KONTRATUA GAUZATZEA

Zerbitzua kalitatez, zorroztasunez eta eraginkortasunez emango du adjudikaziodunak, eta zerbitzua zuzenean edo zeharka arautzen duten indarreko lege- eta erregelamendu-xedapen, arau eta zehaztapen guztiak erabat betez. Bereziki, arau deontologikoak abokatu-lanbidean aritzean.

Enpresa adjudikaziodunak arduradun/solaskide bat izendatuko du, edo bat baino gehiago baldin eta Zugazteleko arduraduna komunikatuko deneko eremuaren arabera talde bat baino gehiago izendatuta badago.

Arduradunak egin beharreko lanen plangintza, jarraipena eta kontrola egingo ditu, eta kalitate-maila egiaztatuko du. Solaskide horrek jasoko ditu Zugaztelen jarraibide orokorrak, eta erantzukizun horren solaskide gisa esku hartuko du.

Arduradunak proiektua garatzeko lantaldea koordinatuko du, proiektuan burutu beharreko ataza guztietan.

Adjudikaziodunaren lantaldea planteatutako premietara egokitutako lanbide-kategoria eta espezializazio-maila duten teknikariek osatuko dute.

Arduradunak jarraipen-orri bat bidaliko du hilero, taldeak hilean izan duen dedikazioarekin.

Zugaztelek beste edozein dokumentu osagarri eskatzeko ahalmena izango du une oro, adjudikazioaren aurretik edo ostean eta lanak egin bitartean, enpresa lizitatzaileak bere buruari buruz nahiz proposatutako langileei buruz eman dituen datu guztiak egiaztatzeko.

© Zugaztel M.P., S.A.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak izendatutako teknikariak aldatu ahal izango dira Zugaztelen eskariz, baldin eta adjudikazioa eragin zuten baldintzak betetzen ez direla ikusiz gero. Kasu horretan, enpresa adjudikaziodunak beste pertsona batzuk proposatu beharko ditu, hasieran proposatutakoen kategoria eta inguruabar pertsonal eta profesional berdinak edo antzekoak dituztenak, baina horrek ez du inola ere aldatuko eskainitako prezioa.

6.1 DATUAK BABESTEA

Enpresa adjudikaziodunak sekretupean eta isilpean gorde beharko ditu langileei emandako edo haien esku utzitako informazioa eta dokumentazioa, edo plegu honetan aipatzen diren zerbitzuak ematearen ondorioz ezagutzen dituztenak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

Eranskinetan azaltzen dira datu pertsonalen tratamenduen xehetasunak.

6.2 SEGURTASUN- ETA KONFIDENTZIALTASUN-BALDINTZAK

Zugaztelek kontratu honetan zehaztutako zerbitzuak gauzatu ahal izateko behar den informazioa eta dokumentazioa emango du, eta enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartu beharko du informazio hori Zehaztapen Teknikoen Plegu honetan jasotako helburuetarako bakarrik erabiltzeko, bai eta informazio hori ez ateratzeko, lagatzeko, argitaratzeko edo saltzeko ere, osorik edo partez, ez euskarri informatikoan, ez paperean.

Adjudikaziodunak segurtasun-arloko konpromisoak bere gain hartu eta arauak bete beharko ditu lan hau dela-eta erabiliko dituen informazio-sistemei dagokienez, indarrean dagoen legeriarekin bat. Hala enpresa nola lan-taldea berariaz derrigortuta daude erabateko konfidentzialtasuna eta zuhurtzia gordetzera kontratua betetzean ezagutu dezaketen edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalak badira. Ezingo dituzte kopiatu, ez Zehaztapen Teknikoen Pleguetako helburuetatik kanpo erabili, eta ezingo dizkiete beste batzuei laga, ezta gordetzeko ere.

© Zugaztel M.P., S.A.

Ondorio horietarako, datuak eskuratzeko orduan ahalik eta zuhurtasun handienaz jokatu beharko da. Ildo horretako edozein arau-hauste astuntzat joko da, hargatik eragotzi gabe izan daitezkeen erantzukizun penalak edo bestelakoak.

Klausula partikularrak betetzera behartuta egongo da adjudikazioduna, eta, bereziki, Zehaztasun Teknikoen Pleguko "11.3. Datu pertsonalak babestea" eta "11.5. Informazioaren segurtasuna" atalak.

6.3 JABETZA INTELEKTUALA

Enpresa adjudikaziodunak honako klausula hauek onartzeko konpromisoa hartzen du:

- Lanarekin zerikusia duten jabetza intelektualeko eskubideak Zugaztelenak dira. Lan horren ondorioz sortutako edozein produktu edo azpiproduktu dagokion eremutik kanpo ezingo da beste helburu batzuetarako erabili, Zugaztelek berariaz idatziz baimentzen ez badu. Enpresa lizitatzaileak Zugazteli helaraziko dizkio fitxategi guztien iturri guztiak eta erabilitako programazio-baliabideak.
- Lana gauzatu bitartean sortutako dokumentazioa Zugaztelen jabetza esklusibokoa da, eta enpresa adjudikaziodunak ezin izango du gorde, ezta kopiarik lortu edo hirugarrenei eman ere, Zugaztelen idatzizko baimen zehatzik gabe. Hala badagokio, Zugaztelek baimen hori emango lioke, enpresak zertarako behar duen berariaz adierazita eskaera formala egin ondoren. Paragrafo honetan xedatutakoa kontratatutako lana egin dela frogatzeko gordeko da. Zugaztelek beren-beregi ematen du baimena lan honen emaitzak erreferentzia gisa eta Zugaztelek berak etorkizunean egingo dituen lanen oinarri gisa erabil daitezen.

© Zugaztel M.P., S.A.

- Enpresa adjudikaziodunak Zugaztelek helarazitako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko du, eta, datu pertsonalei dagokienez, arlo horretako indarreko legeria bete beharko du bereziki. Enpresetako kolaboratzaile guztiek konpromisoa hartzen dute erabateko sekretu profesionala gordetzeko proiektua gauzatzean ezagutzen dituzten datuei, informazioari eta dokumentuei dagokienez, irudikapen modua (ahoz edo idatziz) edozein dela ere. Informazio hori eskuratzeko aukera kolaboratzaileek soilik izango dute, aipatzen ari garen eremuaren barruan esleitu zaizkien atazak garatzeko ezinbestez behar badituzte. Horiei guztiei ohartaraziko zaie eskuratzen duten informazioa zorrozki konfidentziala eta isilpekoa dela.

Era berean, enpresa adjudikazioduna behartuta dago Zugazteli berehala jakinaraztera proiektua gauzatzean informazioaren segurtasun- eta babes-sistemaren akatsekin edo ihesekin lotuta hauteman daitekeen susmo oro.

© Zugaztel M.P., S.A.

I. ERANSKINA: DATU PERTSONALAK BABESTEA

a. Bi alderdiak datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudiaren mende daude: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa (DBEO); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (DBLO-EDB).

b. *Zugaztel, M.P., S.A.* da tratamenduaren arduraduna, eta kontratu bidezko honako lotura hau du tratamenduaren eragilearekin:……., *<adierazi kontratu-prestazioaren xedea>*

c. Zerbitzu horiek emateko, erakunde/enpresa sinatzaileak tratamenduaren arduradunaren erantzukizunpeko datuak eskuratu behar ditu.

d. Kontratu honen bidez, tratamenduaren arduradunak baimena ematen dio tratamenduaren eragileari lehenengoaren kontura tratatu ditzan bigarren manifestuan adierazitako kontratu-prestaziorako beharrezkoak eta ezinbestekoak diren datu pertsonalak.

e. Tratamenduaren arduradunak bere gain hartuko du erantzukizuna, DBEOren 24. artikuluarekin eta haren funtzioei eta betebeharrei buruzko gainerako xedapenekin bat etorriz.

f. Tratamenduaren eragileak, DBEOren 28. artikulua betez, tratamenduaren arduradunaren datuen segurtasuna bermatzeko behar adina berme duela baieztatzen du, datuak babesteko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezarriz.

g. DBEOren 28. artikulua betez, bi alderdiek askatasunez adosten dute tratamenduaren eragilearen kontratu hau sinatzea, honako klausula hauen arabera.

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.– XEDEA

Erakunde/enpresa sinatzaileak onartu eta bere gain hartzen du, idazki honen bidez, datuak **kontratu nagusia egikaritzeko soilik** eskuratzen direla, eta ezin izango ditu aplikatu edo erabili beste helburu batzuetarako.

Arestian deskribatutako xedeak erdiesteko erakundeak/enpresak eskuratzen dituen datu pertsonalak tratamenduaren arduradunaren titulartasunpean daude.

Tratamenduaren helburua eta egingo diren tratamenduak kontratu honen I. eranskinean zehaztutakoak dira.

BIGARRENA.– TRATAMENDUAREN ERAGILEAREN OBLIGAZIOAK

Tratamenduaren eragilea den erakundeak/enpresak tratatuko ditu datu pertsonalak, tratamenduaren arduradunak ezarritako **jarraibideen** arabera, eta behar beste berme emango du **neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatzeko**, tratamendua bat etor dadin legezko eskakizunekin, eta, betiere, interesdunen eskubideen babesa bermatuta.

Tratamenduaren eragilea den erakundeak/enpresak konpromisoa hartzen du DBLO-EDBn eta DBEOn datu pertsonalen segurtasunari buruz jasotako betebeharrak betetzeko, 32. artikulutik 36. artikulura bitartekoetan jasotakoak bereziki.

Tratamenduaren eragileak eta bere langile guztiek honako eginkizun hauek dituzte:

- Tratatu beharreko datu pertsonalak edo enkargua gauzatzean jasotzen direnak tratatzea, **enkargu honen helbururako bakarrik**. Inola ere ezingo dira datuak helburu propioetarako erabili. Betebehar hori funtsezkoa da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako.
- Kasu bakoitzean tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena izan ezean, datu pertsonalak hirugarren pertsonei **ez jakinaraztea edo zabaltzea**, ezta gordetzeko ere.
- Datuak tratatzea **tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera**. Tratamenduaren eragileak hamar (10) egun balioduneko epean jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari jarraibide bat indarrean dagoen datuak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela uste badu.
- Idatziz eramatea **Tratamendu Jardueren Erregistroa**. Bertan, arduradunaren kontura egindako tratamendu-jarduera guztiak jasoko dira, eta DBEOren 30. artikuluan ezarritakoa jasoko da.
- **Ez azpikontratatzea** kontratu nagusiaren xede diren prestazioetako bat ere, datu pertsonalak tratatzea dakartenak, tratamenduaren arduradunaren berariazko baimenik gabe, salbu eta eragilearen zerbitzuen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.
- Enkargu honen bidez eskuratu dituen datu pertsonalak **sekretuan gordetzeko betebeharra** mantentzea, baita haien xedea amaitu ondoren ere.
- Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek **konfidentzialtasuna** errespetatzeko eta dagozkien segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela, espresuki eta idatziz; behar bezala eman behar zaie neurri horien berri. Betebehar horri lotzen zaio tratamenduaren edozein fasetan tratamenduaren eragilearen kontura parte hartzen duen pertsona oro, eta azken horren betebeharra da, halaber, haren mendekotasun organiko eta funtzionalaren pean dauden pertsonei prestakuntza eskaintzea sekretua gordetzeko betebeharrari buruz, eta betebehar horri eustea, baita zerbitzua ematen amaitu ondoren edo zerbitzutik bereizi ondoren ere.

© Zugaztel M.P., S.A.

- Aurreko atalean ezarritako betebeharra betetzen dela **egiaztatzen duen dokumentazioa** arduradunaren esku uztea; besteak beste, datu pertsonalak tratatzeko **baimena duten pertsonen zerrenda**, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkien segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa espresuki eta idatziz hartzen dutela bermatzeko. Behar bezala eman behar zaie horien berri.
- Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek datu pertsonalak babesteko behar duten **prestakuntza** bermatzea.
- Datuak biltzeko unean, egingo diren **datu-tratamenduei buruzko informazioa** ematea. Datuak biltzen hasi aurretik, tratamenduaren arduradunarekin adostu behar da informazioa nola idatzi eta zer formatutan emango den.
- Tratamenduaren arduradunari laguntzea datuen babesaren arloko **eskubideez baliatzeko eskaerei erantzuteko** orduan. Tratamenduak eragiten dien pertsonek beren eskubideez baliatuta egiten dituzten eskaerak tratamenduaren arduradunari helaraziko zaizkio, ebatz ditzan.
- Tratamenduaren arduradunari jakinaraztea, bidegabeko atzerapenik gabe eta, betiere, 72 orduko gehieneko epea igaro aurretik, bere kargura dituen datu pertsonalen **segurtasuna urratu dela**, eta horrekin batera, gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztia ematea.
- **Datuen titularrei** datuen segurtasunaren urraketen berri ematea ahalik eta lasterren, urraketak haien eskubideentzako eta askatasunentzako arrisku handia dakarrenean.
- Tratamenduaren arduradunari laguntzea, datuen babesari buruzko **inpaktu-ebaluazioak egiten** eta kontrol-agintaritzari aldez aurretiko kontsultak egiten, hala dagokionean.
- DBLO-EDBren lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera, kontratistak **aplikatu behar ditu Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala (SEN) arautzen duen urtarrilaren 8ko 311/2022 Errege Dekretuan ezarritako segurtasun-neurriak.** Beraz, tratamenduaren eragileak taxuzko **segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzakoak** hartu beharko ditu, eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, benetakotasuna eta trazabilitatea bermatzeko, baita datu horiek tratatzen dituzten informazio-sistemena bermatzeko ere. Bereziki, SENen II. eranskinean jasotako neurriak aplikatu beharko dira. Ezarritako neurriek eragotzi egin beharko dute lehenengo estipulazioan adierazitako jarduerak gauzatzeko eskuratu behar diren datuak baimenik gabe erabiltzea.
- **Datuak babesteko ordezkari** bat izendatzea, legeak hala agintzen badu, eta haren nortasuna eta harremanetarako datuak arduradunari jakinaraztea.
- Arduradunarentzat eskuragarri jartzea bere betebeharrak betetzen dituela frogatzeko **behar duen informazio** guztia, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek egiten dituen auditoriak edo ikuskapenak egiteko beharrezkoa dena ere.
- Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren **betebeharra betetzen direla frogatzen duten ebidentziak** edukitzea. Adibidez: betetze-mailari,

auditoretzen emaitzei, jokabide-kodeekiko atxikipenari eta abarri buruzko aurretiazko ziurtagiriak. Halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak tratamenduaren arduradunaren esku jarriko ditu.

- Kontratua formalizatu baino lehen, aitorpen bat egitea, adierazteko **non kokatuko diren zerbitzariak** eta nondik emango diren horiei lotutako zerbitzuak. Kontratuaren iraunaldian, kontratistak nahitaez jakinaraziko du adierazpen horretan emandako informazioan gertatzen den edozein aldaketa (zerbitzarien eta lotutako zerbitzuen kokapenari buruzko adierazpena). Bi betebehar horiek funtsezkoak dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako.
- Erakundeak/enpresak konpromisoa hartzen du bere **instalazioetan eskuragarri edukitzeko** tratamenduaren arduradunak emandako datuak, bien arteko harreman juridikoak irauten duen denbora osoan.
- Kontratu-prestazioa amaitu ondoren, **itzuli edo suntsitu** egingo duela hitz ematen du, dagokionaren arabera, eta I. eranskinean izapidetzen denari jarraiki:
    - Atzitu dituen datu pertsonalak;
    - Tratamenduaren ondorioz kontratistak sortutako datu pertsonalak;
    - Datu horietako edozein jasotzen duten euskarriak eta dokumentuak, kopiarik gorde gabe.

Salbu eta legez edo erkidegoko zuzenbideko arauren baten bidez baimentzen edo eskatzen bada horiek kontserbatzea; kasu horretan, ez da bidezkoa izango suntsitzea. Hala ere, tratamenduaren eragileak datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko dira, eta epe hori amaitu bezain pronto modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

Estipulazio hauek, bertan ezarritako betebeharrek eta I. eranskineko jarraibideek osatzen dute tratamenduaren arduradunaren eta tratamenduaren eragilearen arteko tratamendu-enkarguaren kontratua, DBEOren 28.3 artikuluak aipatzen duena. Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak **ezin dira ordaindu kontratu nagusian ezarritakoaz beste modu batean edo modu osagarrian**, eta pleguaren xede den kontratu-prestazioaren eta kontratuaren iraupen bera izango dute, eta, hala badagokio, kontratuaren epe berberetan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratu amaitutakoan, sekretua gordetzeko betebeharrak indarrean jarraituko du, inolako denbora-mugarik gabe, kontratua gauzatzen aritu diren pertsona guztientzat.

HIRUGARRENA.– TRATAMENDUAREN ARDUNADUNAREN OBLIGAZIOAK

Kontratu nagusia betetzetik eratorritako prestazioak gauzatzeko, tratamenduaren arduradunak kontratu honen lehenengo estipulazioan zehaztutako jarduera gauzatzeko behar den informazioa jartzen du tratamenduaren eragilea den erakundearen/enpresaren esku.

Datuen titular diren pertsona interesdunen kategoriak eta tratamenduaren eragilearen esku jarriko diren datu pertsonalen kategoriak I. eranskinean adierazten dira.

Tratamenduaren arduradun gisa honako eginkizun hauek ditu:

- Kontratu honen I. eranskinean zehazten diren **datuak ematea eragileari**.
- Eragileak egin beharreko tratamendu-lanen datu pertsonalen babesari buruzko **arrisku-azterketa edo inpaktuaren ebaluazioa** egitea.
- Kontrol Agintaritzari dagozkion **aurretiazko kontsultak** egitea.
- **DBEOren eta DBLO-EDBren** xedapenak betetzea eta tratamenduaren eragileak betetzen dituela egiaztatzea, aldez aurretik eta kontratu osoan.
- **Tratamendua gainbegiratzea**, ikuskapenak eta auditoriak egitea barne. Tratamenduaren eragile bihurtzen den erakundeak/enpresak onartu egiten du arduradunaren organo auditoreak erabakitzen dituen kontrol- eta ikuskapen-jarduera guztiak egitea, lagatako informazioa behar bezala lortzen eta erabiltzen dela eta aplikatzekoak diren arauzko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

LAUGARRENA.– AZPIKONTRATAZIOEN ARAUBIDEA

Eranskin honen BIGARREN estipulazioko e) letran ezarri den bezala, tratamenduaren eragileak **ezin izango du azpikontratatu** kontratu nagusiaren xede diren prestazioetako bat bera ere, datu pertsonalak tratatzea dakartenak, **tratamenduaren arduradunaren berariazko baimenik gabe**, salbu eta eragilearen zerbitzuen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.

Tratamenduaren eragileak beste pertsona batzuekin azpikontratatu nahi badu kontratu nagusia gauzatzeko eta azpikontratistak datu pertsonalak eskuratu behar baditu, tratamenduaren eragileak tratamenduaren arduradunari jakinaraziko dio aldez aurretik, datu pertsonalen zer tratamendu dakarren identifikatuz, arduradunak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontratazio horri baimena eman ala ez.

© Zugaztel M.P., S.A.

Nolanahi ere, azpikontratazioa baimentzeko, **ezinbestekoa** da honako baldintza hauek betetzea:

- Azpikontratistaren datu pertsonalen tratamendua bat etortzea indarrean dagoen legearekin, kontratu honetan jasotakoarekin, I. eranskineko xedapenekin eta, hala badagokio, tratamenduaren arduradunak ezartzen dituenekin.
- Tratamenduaren eragileak eta azpikontratistak tratamendu-enkarguaren kontratu bat formalizatzea, hemen ezarritakoa baino baldintza murriztaileagoetan. Kontratu hori tratamenduaren arduradunaren esku utziko da, haren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Tratamenduaren eragileak arduradunari jakinaraziko dio beste azpikontratista batzuk sartzean edo ordeztean gerta daitekeen edozein aldaketa; hala, arduradunari dagokion baimena emateko aukera emango dio. Eskaera horri erantzuten ez bazaio, eskaera ukatzen dela ulertuko da.

Tratamenduaren eragileak zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatu nahi baditu, aldez aurretik adierazi beharko du eskaintzan zer izen edo profil duen zerbitzuak ematea aginduko zaion azpikontratistak, kaudimen profesionaleko edo teknikoko baldintzen arabera definituta. Betebehar hori funtsezkoa da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako.

BOSGARRENA.– DATUAK BABESTEKO ARAUDIA BETE BEHARRA

Honen bidez, bi alderdiek datuen babesari buruzko araudiaren mende jartzen dira (DBEO eta DBLO-EDB). Araudi hori kontratu-espedienteari aplika dakiokeen araubide juridikoa da, eta kontratistak eta kontratatzaileak nahitaez bete behar dute. Beraz, bi alderdiek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudian xedatutako betebehar eta estipulazio guztiak.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, bi alderdiek nahitaez beteko dituzte kontratu honetan eta kontratu nagusian datuen babesari buruz ezarritako betebehar eta estipulazio guztiak.

SEIGARRENA.– KONTRATUA EZ BETETZEA

Erakunde/enpresa sinatzaileak adierazten du badakiela eta berariaz onartzen duela tratamenduaren arduradunak edozein unetan eta alde bakarrez **baliogabetu** ahal izango dituela tratamenduaren eragilearen kontratu honen bidez **eskuratutako eskubideak**, baldin eta dokumentu honetan jasotako betebeharren bat bete ez dela antzematen badu.

Betebeharrak ez betetzeak, baimenik gabeko erabiltzaileek informazioa bidegabe eskuratzeak, agindutako eginkizunerako beharrezkoak ez diren prozesuak edo transakzioak esleitzeak eta lortutako informazioa ez zaintzeak edo isilpean ez gordetzeak edozein eratako erantzukizunak sortuko dituzte, erantzukizun penala barne, eta, zehazki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. tituluan ezarritakoak.

© Zugaztel M.P., S.A.

ZAZPIGARRENA.– IRAUPENA

Kontratu hau indarrean egongo da tratamenduaren arduradunarekin harreman juridikoak dirauen bitartean.

II. ERANSKINA:	DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA IDENTIFIKATZEA / IDENTIFICACIÓN DEL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Datu pertsonalen tratamendua	Tratamiento de datos personales
Kontratatutako zerbitzua emateko, Tratamenduaren Eragilea, Tratamenduaren Arduradunaren datu pertsonalak tratatu ditzake. Tratamendu horren deskribapena eranskin hauetan azaltzen da.	Para la prestación del servicio contratado, el Encargado del Tratamiento ha de acceder a datos personales del Responsable del Tratamiento. La descripción y el alcance de dicho tratamiento se detalla en el presente Anexo.
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako	**Identidad del Responsable del tratamiento y contacto**
Zugaztel, M.P., S.A., erakundearen zuzendaritza kudeatzailea. Kanariar Uharteak kalea, 21 – 3. solairua - 48015- Bizkaia.	Dirección Gerente de Zugaztel, M.P., S.A., Islas Canarias 21, 3 planta, Bilbao – 48015 – Bizkaia.
Tratamenduaren eragilearen nortasuna eta harremanetarako datuak	**Identidad del Encargado del tratamiento y datos de contacto**
Pertsona kontratista izango da.	Se corresponderá con la *persona contratista*.
Tratamenduaren arduraduneko Datuak Babesteko Ordezkaria	**Persona delegada de Protección de Datos del Responsable del Tratamiento**
Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burua. Kale Nagusia, 2, 6.a – 48001 Bilbo.	Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos de Diputación Foral de Bizkaia. Gran Vía 2, 6º – 48001 Bilbao.
Tratamenduaren helburua	**Finalidad del tratamiento**
Kontratutik eratortzen den datuen tratamendua adieraziko da: • Zugaztel, M.P., S.A.ren aholkularitza juridikoko zerbitzua.	Se indicará el tratamiento de datos que se derive del contrato: • Servicio de asesoría jurídica de Zugaztel, M.P., S.A.
Pertsona interesdunaren eskubideak	**Derechos de la persona interesada**
Interesatuak/eraginpekoak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako: Zugaztel, M.P., S.A. Kanariar Uharteak kalea, 21 – 3. solairua - 48015- Bizkaia. Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko.	La persona interesada podrá acceder a sus datos, solicitar su rectificación, su supresión o la limitación de su tratamiento, y oponerse a este presentando un escrito dirigido a: Zugaztel, M.P., S.A., Islas Canarias 21, 3 planta, Bilbao – 48015 – Bizkaia. La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente.

© Zugaztel M.P., S.A.

Datuen tratamenduaren jarduerak		Actividades del tratamiento de datos	
Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:		El tratamiento de los datos personales comprenderá:	
Datuak atzematea		Captura de datos	
Datuak grabatzea	X	Grabación de datos	X
Datuak egituratzea		Estructuración de datos	
Datuak aldatzea		Modificación de datos	
Interesdunekin harremanetan jartzea	X	Puesta en contacto con personas interesadas	X
Datuak biltegiratzea	X	Almacenamiento de datos	X
Datuak ateratzea (berreskuratzea)		Extracción de datos (recuperación)	
Datuak kontsultatzea	X	Consulta de datos	X
Datuak lagatzea / zabaltzea		Cesión / difusión de datos	
Datuak interkonektatzea (gurutzatzea)		Interconexión (cruce) de datos	
Datuak erkatzea (egiaztatzea)	X	Cotejo (comprobación) de datos	X
Datuak suntsitzea	X	Destrucción de datos	X
Tratamenduaren eragilearen informazio-sistemetan datuak kontserbatzea		Conservación de datos en sistemas de información del encargado de tratamiento	
Datuen aldi baterako kopiak egitea		Copias temporales de datos	
Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea	X	Copias de seguridad de los datos, recuperación de datos	X
Beste batzuk (zehaztu)		Otros (especificar)	

Tratamenduaren zilegitasuna	Legitimación del tratamiento
1. DBEOren 28. art. 2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoaren kontratuei buruzkoa. 3. Pertsona kontratistarekin formalizatu beharreko kontratua.	1. Art 28 RGPD 2. Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. 3. Contrato a formalizar con la persona contratista.

Datu pertsonalen kategoriak		Categorías de datos personales	
DATOS IDENTIFICATIVOS:		DATOS IDENTIFICATIVOS:	
		D.N.I. /N.I.F. / Documento de	X

NAN / IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala	X
Izen-abizenak	X
Posta-helbidea	
Telefonoa	
Sinadura	
Nazionalitatea	
Jaioteguna	X
Jaioterria	
Adina	X
Egoera zibila	X
Helbide elektronikoa	
Sexua	X
Gizarte Segurantzako zenbakia	X
Irudia (argazkiak edo bideoak)	
Soinuak (audio-grabaketak)	
Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instragram profilak, besteak beste	
Seme-alaba kopurua	X
Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, taila, besteak beste)	
Beste batzuk (*zehaztu)*	
BESTE DATU MOTA BATZUK	
Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste)	X
Lanbide-esperientzia -edo -historia	X
Lanbidea	X
Lanpostua edo lanbide-kategoria	X
Lizentziak edo baimenak	X
Elkarte, klub edo bestelakoetan kide izatea	
Jabetza edo ondasunak	
Ekonomikoak, finantzarioak edo aseguruenak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, zergei, soldatei, subsidioei buruzko datuak,	X

Identificación Oficial	
Nombre y Apellidos	X
Dirección postal	
Teléfono	
Firma	
Nacionalidad	
Fecha Nacimiento	X
Lugar de nacimiento	
Edad	X
Estado Civil	X
Correo electrónico	
Sexo	X
Nº de la Seguridad Social	X
Imagen (Fotografías o videos)	
Sonidos (Grabaciones de audio)	
Redes Sociales (Perfil Twitter, Facebook, Instagram, entre otros)	
Número de hijos o hijas	X
Características personales (Altura, peso, talla, entre otros)	
Otros (*especificar*)	
OTRO TIPO DE DATOS	
Datos de formación (Títulos, Académicos, diplomas, entre otros)	X
Experiencia o Historial profesional	X
Profesión	X
Puesto de trabajo o categoría profesional	X
Licencias, permisos o autorizaciones	X
Pertenencia a Asociaciones, Clubes, entre otros	
Propiedad o posesiones	
Económicos, Financieros y de Seguros (Datos Bancarios, Cuenta Corriente, Número de Tarjeta, Datos sobre Tributos, Sueldos, Subsidios, entre otros)	X

© Zugaztel M.P., S.A.

besteak beste)	
Informazio komertzialerako datuak (jarduerak, negozioak, besteak beste)	
Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasun edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasun edo zerbitzuak, besteak beste)	
Administrazioko arau-hausteei buruzko datuak	X
Zigor arau-hausteei buruzko datuak	X
Beste batzuk (*zehaztu*)	
DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEOREN 9. ART)	
Etnia- edo arraza-jatorria	
Iritzi politikoak	
Sinesmen erlijioso edo filosofikoak	
Sindikatu-afiliazioa	X
Datu genetikoak	
Pertsona fisiko bat adiera bakarrean identifikatzera bideratutako datu biometrikoak	
Osasunari buruzko datuak	X
Sexu-bizitzari edo sexu-joerei buruzko datuak	

Datos de información comercial (Actividades, Negocios, entre otros)	
Datos de transacciones (Bienes o servicios ofertados por la persona interesada, bienes o servicios recibidos por la persona interesada, entre otros)	
Datos sobre infracciones administrativas	X
Datos sobre infracciones penales	X
Otros (*especificar*)	
CATEGORÍAS ESPECIALES DE DATOS (ART. 9 RGPD)	
Origen étnico o racial	
Opiniones políticas	
Convicciones religiosas o filosóficas	
Afiliación sindical	X
Datos genéticos	
Datos biométricos dirigidos a identificar de manera unívoca a una persona física	
Datos relativos a la salud	X
Datos relativos a la vida sexual o las orientación sexuales	

Pertsona interesdunen kategorien deskribapena	**Descripción de las categorías de personas interesadas**

Herritarrak		Ciudadanía	
Adingabeak *(14 urte, DBEDBLOren 7. art)*		Menores *(14 años, art 7 LOPDGDD)*	
65 urtetik gorako pertsonak		Personas mayores de 65 años	
Egoiliarrak		Personas Residentes	
Bezeroak		Personas Clientes	
Hornitzaileak		Personas Proveedoras	
Atxikitako pertsonak edo kideak		Personas Asociadas o Miembros	
Jabeak edo errentariak		Personas Propietarias o Arrendatarias	
Ikasleak		Personas Estudiantes	
Legezko ordezkariak	X	Personas Representantes Legales	X
Harremanetarako pertsonak	X	Personas de Contacto	X
Eskatzaileak		Personas Solicitantes	
Onuradunak	X	Personas Beneficiarias	X
Langileak		Personas Trabajadoras	
Enplegu-eskatzaileak		Personas Demandantes de Empleo	
Kargu publikoa duten pertsonak		Personas con Cargos Públicos	

Datuen hartzaileak	Personas destinatarias de los datos
"Ez da datu pertsonalak lagatzeko aukera aurreikusten".	*"No se contempla la posibilidad de cesión de datos personales".*
Datuak kontserbatzeko epea	**Plazo de conservación de los datos**
Kontratuaren egikaritzea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar kontserbatuko da, bere berme-epean zehar hedatu eta legezko edo kontratuzko betebeharrak bete.	Se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la ejecución del contrato, extensión durante su plazo de garantía y posterior cumplimiento de obligaciones legales y contractuales.
Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea	**Disposición de los datos al terminar el tratamiento de datos**
Tratamendua amaitzen denean, *pertsona kontratistak* honako hauek egin beharko ditu Datuak suntsitzea, prestazioa eman ondoren. Suntsitu ostean, *pertsona kontratistak* suntsitu egin dituela ziurtatu beharko du idatziz eta	Una vez finalice el tratamiento, la persona contratista debe: Destruir los datos, una vez cumplida la prestación. Una vez destruidos, la persona contratista debe certificar su destrucción por escrito y debe entregar

© Zugaztel M.P., S.A.

tratamenduaren arduradunari eman beharko dio ziurtagiria. Edozelan ere, *pertsona kontratistak* kopia bat gorde dezake, behar bezala blokeatutako datuekin, prestazioaren betearazpenetik erantzukizunak sortu daitezkeen bitartean.	el certificado a la persona responsable del tratamiento. No obstante, la persona contratista puede conservar una copia, con los datos debidamente boqueados, mientras puedan derivarse responsabilidades de la ejecución de la prestación.
Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra	**Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad**
Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 311/2022 Errege Dekretuaren arabera. MAILA ERTAINA	Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 311/2022, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica. NIVEL MEDIO

Kanariar Uharteak 21, 3. solairua
48015 BILBO (Bizkaia)
Tel - Telf: (+34) 94 656 7717
Faxa - Fax: (+34) 94 401 2348
erosketakzugaztel@bizkaia.eus
http://zugaztel.bizkaia.eus

- Herritarrei arreta eskaintzeko kanal anitzeko azpiegituren diseinua eta garapena / *Diseño y desarrollo de infraestructuras multicanal para la atención a la ciudadanía*
- Dokumentuei alta eman eta horiek grabatu nahiz digitalizatzea zerbitzua / *Servicio de alta, grabación y digitalización de documentos*
- Herritarrei kanal orotako arreta ez-presentziala eskaintzeko zerbitzua / *Servicio de atención no presencial omnicanal a la ciudadanía*
- Marketing digitaleko zerbitzua: sare sozialen eta eduki digitalen koordinazioa, plangintza, argitalpena, monitarizazioa eta jarraipena / *Servicio de marketing digital: coordinación, planificación, publicación, monitorización y seguimiento de social media y contenidos digitales*